

## Sagardo Berriaren Eguna, gaurkoa

Gaur irekiko dute uzta berriko aurreneko kupela Alorrenea sagardotegian, eta kupela irekiko duen gonbidatu berezia Izaro Andres abeslaria izango da.

ASTIGARRAGA TXOTX IREKIERA

Iritsi da azkenean uzta berriko aurreneko kupela irekitzeko eguna, hori dela eta, egun borobila izango da gaurkoa. Izaro Andres abeslaria irekiko du Alorrenea sagardotegiko aurreneko kupela, eta txotx denboraldiari hasiera emango dio.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da mugimendua, ordu horretan jarri baitute zita Sagardotegian, aurkezpen ekitaldia egongo delako. Aurkezpen honetan,

**Denboraldi berriko aurreneko kupela 13:45ak aldera irekiko du Izarok, «Gure Sagardo Berria» oihukatuz.**

2019ko ezaugarri nagusiak azalduko dituzte, hala nola sagarra eta sagardoarenak, eta noski sagarraren inguruko ezaugarri garrantzitsuenak ere erakutsiko dituzte. Bertan izango dira Xabier Urdangarin alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria; sagardogileen ordezkariak; eta Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak.

Urtero, behin aurkezpena amaituta, gonbidatu bereziak sagarrondo berri bat landatzen du Sagardotegiko sagastian, eta kasu honetan, aurtengo sagarrondoak landatzea egokitu zaitzazu Izaro Andres abeslariari.

Jarraian, Alorrenea sagardotegira joango dira denak, hor



Aurreko urtean, Gartziategin izan zen Txotx irekiera.

izango baita ekitaldi nagusiena. 13:30ak aldera, sagar dantza eskainiko dute sagardotegian bertan, eta ondoren soka dantza egingo da, Izaro Andresek bertan parte hartuz. Sokarekin, txotx denboraldiko aurreneko kupelara gerturatuz. Lehenengo kupela, 13:45ak aldera irekiko du Izarok «Gure Sagardo Berria» oihu eginez.

**Txotx irekiera zuzenean emitituko da Streaming bidez, Sagardoaren Lurraldearen Youtubeko kanalean: <http://bit.ly/36QkSkA>**

**Herriko tabernan, Txotx irekiera telebistan**  
Alorrenean egingo den txotx irekiera ez da bakarria izango, Astigarragan Txotx Irekiera Herrikoia egingo baitute, eta herriko tabernan Alorrenea sagardotegiko txotx irekiera jarriko dute telebistan, herrikoek ere irekieraz gozatzeko, modu batera edo bestera. **K**

### SAGARDO BERRIAREN EGUNA

GAUR

**11:30-12:30**, Akreditazioen banaketa Sagardotegian

**12:00**, Pentsaurrekoa Sagardotegian. Bertan azalduko dituzte 2019ko uzta ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak, eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

**12:45** Izaro Andresek sagarrondo bat landatuko du Sagardotegiko sagastian.

**13:30**, Txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatu da Alorrenea sagardotegian; eta ondoren, sagardogileek Izaro Andres soka dantzan parte hartzera lagunduko dute, aurreneko kupela irekitzeko.

**13:45** Alorrenea sagardotegian «Gure Sagardo Berria» oihu eginda, aurreneko kupela irekiko

du Izaro Andresek, eta horrekin batera, 2020ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko aurreneko menua dastatuko da.

**TXOTX BERRI HERRIKOIA**

**13:45-14:00**, Herriko tabernetan Alorreneko txotx irekieraren zuzeneko emanaldia.

**17:00**, Haurrentzako jolasak

**18:30-20:30** Pintxotx musikatuak, Astigarragako tabernetan.

## Odol emaile bila, Inmakuladako ikasleak

HERNANI ODOL EMATEA

Inmakulada ikastetxean, «odol emaileen altxoraren bila» proiektua egiten ari dira, eta odol emaileak behar dituzte. Ostiralean, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara egongo dira, Inmakulada ikastetxean. Animatzeko deia egiten dute.

## Hezkuntz eskola, bihar

HERNANI HEZKUNTZA ESKOLA

Bihar arratsaldeko 17:30etan, hezkuntza eskola eskainiko da, udaletxeko areto nagusian. Oraingoan Langile Ikastolako Agurtzane Rama eta Maite Ezponda irakasleak, ikastolan martxan den baso eskolaren proiektuari buruz jardungo dute. Oro har, zaintza zerbitzua ere eskainiko da.

## Zinema Zikloa, bigarren egunez

HERNANI ZINEMA ZIKLOA

Gaur, *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa* filma jarriko dute Biterin, arratsaldeko 19:30etan hasita. Bihar eta etzi, *Apaga la luz y verás* jarriko dute, Zinema Zikloari amaiera emateko.

## Hitzaldia gaur, AEKn

ASTIGARRAGA AEK

Euskararen jatorriari buruzko hitzaldia eskainiko da gaur arratsaldeko 19:00etan hasita, AEKn.

## Ipuin kontaketa gaur, Apaxik

HERNANI IPUIN KONTAKETA

Gaur arratsaldeko 17:30etan, 3-4 urte bitartekoek zuzendutako ipuin kontaketa eskainiko du Apaxik, eta 18:00etan berriaz, 5-7 urte bitartekontzat bigarren saioa egongo da.

**SAGARDO BERRIAREN EGUNA**

**LARRE-GAIN**  
TOLARE SAGARDOATEGIA

**Sagardo naturala urte osoan botilletan salgai.**

943 55 58 46  
616 28 78 67

EREÑOTZU - HERNANI

## Ostiralean zabalduko ditugu atak

Astez eguerditan ere zabalik

### AUTOBUS ZERBITZUA

OSTIRALERO

GAUEAN: 21:00ETAN ELKANO KALETIK (BITERI PAREAN)

LARUNBATERO

EGUERDIAN: 13:45ETAN ELKANO KALETIK (BITERI PAREAN)

GAUEAN: 21:00ETAN ELKANO KALETIK (BITERI PAREAN)



**GAUR** Gaurkoan hodeiak nagusi izango dira, eta egunaren zati batzuetan zerua estalita egongo da. Egunaren hasieran hego haizea zakar ibiliko da eta tenperatura maximoak igo egingo dira. **Min.8° / Max.16°**

**BIHAR** Bihar, hego haizea izango da nagusi, haize honek tenperaturak igo egingo ditu. Egunaren hasieran ostartean izango dira protagonistak baina arratsaldean, hodeiak aterako dira. **Min.9° / Max.20°** (euskaletzet)

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Maite Arrietak, atzo ireki zuen Pintura, Olio eta Serigrafiaz betetako erakusketa.

## Grabatuak, monotipoak eta gehiago, Arrietaren erakusketan

### HERNANI ERAKUSKETA

Atzo Maite Arrietak, Pinturak Olioak eta Serigrafia erakusketa ireki zuen Biterin, lunch baten laguntzarekin. Hilabete

amaiera arte egongo da erakusketa ikusgai, Biterin, urtarrilaren 31 arte, hain zuzen. Bertan hainbat artelan aurki daitezke, haien artean, grabatuak, mo-

notipoak, gofradoak (tintarik gabeko koadroak), akuarelak, aguaintak, serigrafiak, eta beste hainbat pintura eta koadro gehiago.

## Urte osoan zehar dago izena emateko aukera, Mintzalagun egitasmoan

Tutik Gura, Ongi Etorri Mintzalagunon Mundura salto egiteko gobitea luzatu nahi izan du Euskaltzaleen Topaguneak, eta noski, Doberak.

### HERNANI MINTZAPRAKTIKA

Urte berriarekin batera, askotan proiektu berriak datorzkigu burura, eta haietako bat izan daiteke Mintzalagun bihurtzea. Hori dela eta, Hernanin Doberak eskaintzen duen Mintzalagun egitasmoan izena emateko epea zabalik dago eta egongo da urte osoan zehar.

Euskaraz hitz egiteko ohi-tura dutenak, eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltzeko programa batean oinarritutako proiektua da, Mintzalaguna. Eta asmoa da, euskera hobetzea, gehiagotan erabiltzea, euskeraz bizitzea, normalizazioaren alde egitea, ingurune euskalduna sortzea, indartzea eta zabaltzea, besteak beste.

Hainbat modu daude euskeraz sustatzeko eta euskeraz

jarduteko, astean behin; ordu-betez, talde txikitik, haunditan, binaka. Paseoan ere izan daiteke, bazkal osteko kafea hartzen, parkean eserita... Euskeraz hitz egiteko ohi-tura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak elkartzeko, gaintzeko mintzataldeekin koordinatuta. Horrez gain ekin-tza osagarriak ere egin daitezke, hala nola, irteerak, afariak, kirol ekintzak, Mintza eguna...

### Eta gurasoak zer?

Haurrak dauzkaten pertsonetan pentsatuz, Gurasolagun sortu zen, Ikastetxeko gurasoak biltzen dituen mintzalagunen aldaera. Haurrak direla eta, orduetara edo zaintza behar-rra egokitzen da. Beraz, «hainbat modu daude euskeraz jarduteko, eta ez dago aitzakirik».

Parte hartzeko balditza bakarra eta garrantzitsu bat dago; euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea.

### Izen ematea, urte osoan

Mintzalaguna izateko, izena eman behar da, eta urte osoan dago zabalik izena emateko epea. Hainbat modu daude apuntatzeko, Doberako bulego-bera bertaratuz, telefonora deituz (943 33 27 99), edota emaila bidalitz; dobera@dobera.eus.

### Postalaren jolasa martxan

Mintzapraktika egitasmoaren baitan, postalaren jolasa jarri dute martxan, eta otsaila amaiera arte iraungo du. Mintzalaguna bazara eta postala badaukazu, mintza-laguna@topagunea.eus hel-bidera mezuzatu bidali behar duzu, bidalita-ko eta jasotako postalarekin argazkia atereaz. Landetxe batean asteburu pasa bat zozketatuko da. Eta postala lortu nahi izanez gero, Doberako bulegotik pasa. **K**

## JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Beste taberna bat gehiago

Taberna bat irekitzen denean, berri txar bat izaten da, bai goiko bizilaguntzat, baita beste tabernarientzat ere. Baina guretzat, aulki gorpildunetan ibiltzen garenontzat, berri ona da hau. Izan ere, lokal hauek, «kota zero» edo gutziz lauak dira; legediak behartzen baitu, lokal bat publikora ireki nahi bada, horrela egotera eta komuna diskapazitatuentzat egokitutakoa izatera.

Orduan, lehenagotik irekita zeudenak libratzen dira, baina horrek ez du esan nahi legedia betetzen dutenik. Hauek ez dituzte ezagutzen «iris-garritasun unibertsala» eta horrelako terminoak, edo ez dituzte ezagutu nahi.

Dendekin berdin gertatzen da. Ezin izaten dugu sartu eta kanpoan geratu behar dugu. Bartzuk badaukate arrantza sartu ahal izateko eta galdetu izan dut zergatik ez duten jarrita uzten, eta erantzun didate norbaitek estropozu egiten badu beraien-tzat dela salaketa eta beraz, nahiago dutela, behar dudanean momentuan jartzea, orduan, zerbait finkoa behar dudanera-ko da.

Baina honekin, hiru gauza etortzen zaizkit burura:

lehenengo, norbaitek estropozu egitearen arriskuagatik geratzen garela gu kanpoan, gu ere bereziki pontentzialak garenean. Bigarren, kalea aurkitzen du-gula, askotan, ez oso egoera onean eta horrela moldatu behar izaten dugula gure aul-kiekin. Eta hirugarren, ni lehen ez nintzela diskapazitua eta gauzak begiratzeraz sartzen nin-tzen eta orduan «pikatu» egiten nuen.

Bukatzeke esan, norma-lean legedia gizartearen atzetik joa-ten dela, eta horrela legeak zaharkituak geratzen direla. Jendeak zerbait eskatzen duenean, eguneratu egin behar da, adibidez, eutanasiaren gaia. Baina diskapazitatearen gaia alderantzizkoa da, politikoa beti ados egon dira zerbait egin behar dela esaten denean, eta hitz politikak erabiltzen dira, baita lege aurrerakoia ere, baina gero ez dira betetzen. Beraz, ongi etorri tabernari berriei, barrura sartu ahal dugulako eta horrela inklusioa jorratuz jendearekin harremaneta egon gaitzkeelako.

**Eukene Lizarbe A. de Arkaia, Kokxa Elkarteko partaidea eta Kokxako beste batzuk.**

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**MARGA TOMASENA MENDIZABAL**  
Atzo hil zen, 60 urte zituela

Anai-arrebak: Maite, Eba eta Xabi, Ixiar eta Iker, Aingeru eta Elias; ilobak: Antton eta Eukene, eta Aizpea; lehenagusuak, gainerako ahaideak eta lagunak.

Bere familiak **HERNANIKO ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN** hartuko du **GAUR, ASTEAZKENA**, goizeko **HAMAR T'ERDIAK** arte. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 15ean

**MARGA TOMASENA MENDIZABAL**

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.

**ZURE LAGUNAK**  
Ade, Ana, Isa, Asun, Mariaje eta Merilu

Hernanin, 2020ko urtarrilaren 15ean

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta portugesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**